

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAK (B1) TARTEKO MAILAKO ZIURTAGIRIA ESKURATZEKO PROBAREN

DESKRIBAPENA

1. PROBAREN HELBURUA

Azterketariak komunikatzeko duen gaitasuna eta hizkuntza erabiltzeko duen gaitasuna ebaluatzea da probaren helburua.

Probaren bidez, azterketariak, ohiko egoeretan zein oso ohikoak ez direnetan, elkarreraginean, informazioa jasotzeko eta emateko hizkuntza segurtasun eta malgutasun nahikoarekin erabiltzeko zer-nolako gaitasuna duen ebaluatuko da. Gai orokorreki buruzko edo nor bere intereseko gaiei buruzko ahozko testuak eta testu idatziak ulertzeko eta sortzeko gaitasuna agertu beharko du azterketariak, hizkuntza-baliabide errazen errepertorio zabala dezente jakinda, hizkuntza estandarraren aldaera formal eta informalean.

Tarteko Mailako probaren maila finkatzeko, Europako Kontseiluaren B1 mailaren berezko gaitasunak hartuko dira oinarri, hizkuntzen Europako Erreferentzi Markoan definitu bezala.

Informazio gehiago: *Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskoletako Hizkuntzen Irakaskuntza Berezien [Tarteko Mailari dagokion Curriculum](#).*

2. PROBAREN DESKRIBAPENA

2.1. Egitura eta iraupena

- Probak lau atal izango ditu. Atal bakoitzean trebetasun bat ebaluatuko da: irakurriaren ulermena, entzunaren ulermena, idatzizko adierazpena eta ahozko adierazpena. Lehenengo hiru atalek idatzizko proba osatzen dute eta saio bakar batean egiten dira. Azkena ahozko proba da eta beste saio batean egiten da.
- Iraupena (gehienez): 2 ordu eta 55 minutu, honela banatuta: 2 ordu eta 35 minutu (gehienez) idatzizko proba egiteko, eta 20 minutu ahozko probarako.

2.2. Puntuazioa

- Tarteko Mailari dagokion Ziurtagiria eskuratzeko, atal guztiak gainditu beharko ditu azterketariak. %50eko puntuazioa lortu beharko du gutxienez, bai idatzizko probako atal bakoitzean (hau da, 20 puntutik 10), bai proba osoari dagokionez (60tik 30 puntu), bai ahozko proban (20 puntutik 10).

2.3. Ahozko probarako deialdia

Idatzizko proba behin osorik gaindituta, azterketariari ahozko proba egiteko deituko zaio. Hala ere, idatzizko proba gainditu gabe daukaten azterketariek ahozko proba egiteko eskaera egin dezakete matrikulatuta dauden eskoletan. Horretarako, emango zaien inprimakia bete beharko dute:

- Ikasle libreek: ekainean
- Ikasle ofizialek: irailean

Dena dela, ahozko proba gainditzeak, idatzizkoa suspendituta duela, ez dio azterketariari (B1) Tarteko mailako ziurtagiria eskuratzeko eskubiderik emango.

2.4. Probaren zatien deskribapena

Irakurriaren Ulermena

EGIN BEHARREKO ARIKETAK	PUNTUAZIOA GUZTIRA	GUTXIENENKO PUNTUAZIOA	IRAUPENA
3	20 puntu - %25	10 puntu	50 minutu

HELBURUAK	TESTU-MOTA POSIBLEAK	ARIKETA-MOTA POSIBLEAK
<p>1. Idatzi baten puntu nabarmenak identifikatzea, baita ondorioak eta argudioak zein diren ere.</p> <p>2. Idatzi bat zehatz-mehatz ulertzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Mezuak (SMSak, posta elektronikoak, eskutitzak), bai izaera sozialekoak, bai pertsonalak; informazioa, interesak, bizipenak, erreakzioak eta sentimenduak elkarrekin trukatzeko ◆ Oinarrizko eskutitz formalak ◆ Informazioa helarazteko edo azalpenak emateko txostenak ◆ Lan-iragarkiak ◆ Tresnak erabiltzeko eta prozedurak jarraitzeko argibideak eta arauak ◆ Iragarki publikoak eta oharrak ◆ Prospektuak ◆ Publizitate-iragarkiak ◆ Liburuxka eta gida turistiko eta komertzialak ◆ Ohiko txostenak ◆ Aisialdirako gidak, katalogoak ◆ Web orriak ◆ Errezetak ◆ Egunkariak eta aldizkariak: erreferente ezagunak dituzten albisteak, espezializatu gabeko artikuluak, erreportajeak, elkarrizketak, iritzi-artikuluak, "zuzendariari eskutitzak" ◆ Biografiak ◆ Horoskopoak 	<ul style="list-style-type: none"> ◆ erantzuna: aukera anitzekoak ◆ egia-gezurra ◆ informazio-transferentzia ◆ ordenan jartzeko lanak ◆ elkarrekin lotzea: (egoera edo epigrafe bakoitza idatzi batekin lotzea / esaldi bakoitza zein testutakoa den aukeratzea) ◆ hutsuneak betetzea: (perpausak hutsuneetan txertatzea / zerrenda edo sail batean emandako hitzekin hutsuneak betetzea, hitzak zenbakia duen laukitxo batera eramanez / testua osatzea, aukera egokiarekin hutsuneak betetz / testua osatzea, hitz bakar batekin hutsuneak betetz) ◆ erantzun bakarreko galdera irekiak

Entzunaren Ulermena

EGIN BEHARREKO ARIKETAK	PUNTUAZIOA GUZTIRA	GUTXIENEO PUNTUAZIOA	IRAUPENA GEHIENEZ
2 edo 3	20 puntu (%25)	10 puntu	35 minutu

HELBURUA	TESTU-MOTA POSIBLEAK	ARIKETA-MOTA POSIBLEAK
<p>1. Gai orokorrean edo nork bere interesekoei buruz argi eta modu estandarrean ahoz emandako testu gehienek edukiak ulertzea</p> <p>2. Erregistro estandarrean eta modu argian emandako eztabaida, hitzaldi eta parte-hartzeetako informazio zehatza eta xehetasunak ulertzea, nahiz eta saio luzeak izan, baita narrazioetan edo argibideetan emandakoak ere.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Aurrez aurreko elkarrizketa arruntak, informalak ◆ Elkarrizketa formalak, ohiko egoeretan ◆ Informazioa, ondasunak eta zerbitzuak eskatzeko eta emateko, eta arazo zehatz eta jakin-jakinak konpontzeko transakzioak (administrazioko izapide errazak, erreklamazioak, itzulpenak) ◆ Mezu, deskribapen eta narrazioen transmisioa ◆ Taldeko bilera eta elkarrizketetako elkar eragiteak, interakzioak ◆ Gai ezagunei buruzko eztabaidak hizkuntza estandarrean ◆ Kultura gai ezagunen eta eguneko eguneko gaien inguruko iritzi, iruzkin eta arrazoitzeak ◆ Argibideak, aholkuak eta jarraibideak ◆ Aurkezpenak ◆ Gai orokorrean buruz argi eta garbi egituraturako hitzaldiak eta konferentziak 	<ul style="list-style-type: none"> ◆ erantzuna: aukera anitzekoak ◆ egia-gezurra ◆ informazio-transferentzia ◆ entzutezko testu zatiak batzuk besteekin lotzea ◆ ordenatze lanak ◆ erantzun bakarreko galdera irekiak

Idatzizko Adierazpena

EGIN BEHARREKO ARIKETAK	PUNTUAZIOA	GUTXIENEO PUNTUAZIOA	IRAUPENA
2	20 (5 +15) puntu (%25)	10 puntu	70 minutu

HELBURUA	TESTU-MOTA POSIBLEAK	ARIKETAK
1. Informazioa emateko, eskatzeko edo egiaztatzeko eta bizipenak, interesak, erreakzioak, sentimenduak edo gertaerak xehetasun nahikoarekin azaltzeko testuak idaztea, eta idatzian ustez garrantzitsuenak diren aldeak azpimarratzea.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ artikulu labur eta errazak ohiko gaien inguruan, eskolako egunkari eta aldizkarietarako ◆ ohiko gertaeren inguruko txosten laburrak ◆ gai zehatzen inguruko iritzia ◆ jardueri buruzko kontakizun laburrak ◆ eguneroko gai, plan edo gertaera zehatzen inguruko deskribapen errazak ◆ biografia ◆ eskutitz pertsonalak ◆ eskutitz formalak (lan-eskaerak, aurkezpen-gutunak, erreklamazio-eskutitzak) ◆ inprimakiak (instantziak, erreklamazioak, eskabideak) ◆ galdeketa ◆ testu elektronikoak (email, forum, bloga,...) 	<ul style="list-style-type: none"> ◆ testu motzago bati erantzunez edo argibideei jarraituz idaztea: ◆ intereseko gai baten inguruko artikulu xume bat eskolako egunkari edo aldizkarietarako ◆ eskutitz / mezu elektroniko pertsonala / mezu elektroniko formala eduki hauetakoren bat izan dezakeena: <ul style="list-style-type: none"> ▪ jardueren kontakizun laburra ▪ gai jakin eta zehatz baten inguruko iritzia ▪ eguneroko gai baten inguruko deskribapen erraza ▪ gertaera jakin eta zehatz baten (bidaia, etab.) inguruko deskribapena ▪ plan eta erabakien deskribapena <p>180 hitz gutxi gorabehera</p> <p>PUNTUAZIOA : 15</p>
2. Argibideak eta informazioa ematea edo helaraztea.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ mezu elektroniko laburrak ◆ ohar eta iragarpen errazak, informazio, argibide eta jarraibideekin 	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Ohar, iragarpen edo mezu erraza, informazio zehatz eta jakinarekin <p>80 hitz gutxi gorabehera</p> <p>PUNTUAZIOA : 5</p>

Ahozko Adierazpena

EGIN BEHARREKO ARIKETAK	PUNTUAZIOA, GUZTIRA	GUTXIENEO PUNTUAZIOA	IRAUPENA
2	20 (8+12) puntu %25	10 puntu	20 minutu

HELBURUA	TESTU-MOTAK	ARIKETAK
<p>3. Modu laburrean azaldutako egoera, gertakari edo albiste baten aurrean informazioa adieraztea eta helaraztea.</p> <p>4. Ikuspuntua adieraztea.</p>	Bakarrizketa, beste azterketari bati edo batzuei zuzendua	<p>Emandako gaia (testu laburra, argazkia edo azalpenak dituen grafikoa...) jaso eta haren aurrean bere ikuspegia adierazi edo eman beharko du azterketariak beste azterketari-mintzakideari/ei zuzenduz: zertaz den, zer planteatzen duen, bere iritzia zein den,...</p> <p>Ariketa egiteko behar den informazioa ulertzeko denbora: 2 minutu</p>
<p>5. Iritziak, planak, adostasunak eta adostasunik ezak adieraztea eta horiei eustea, azalpen eta ohar egokiak eskainiz; bestelako aukerak alderatzea eta kontrastatzea.</p> <p>6. Ohiko gaien inguruko informazio zehatza jasotzea eta trukatzeko, nahikoa segurtasunez.</p>	Beste azterketari batekin edo batzuekin elkarrizketa	<p>Azterketariak elkarren artean hitz egingo dute, galderak egingo dituzte eta erantzunak eman, hitza hartu eta emango dute informazioa trukatzeko, ohiko gaien inguruko iritziak adierazteko, arazo baten arazoak azaltzeko, bestelako aukerak alderatzeko eta kontrastatzeko.</p> <p>Azterketariak orri, txartel edo fitxa bat jasoko dute. Han zehatuko da ariketa eta ariketa hori egiteko beharrezkoa den informazioa.</p> <p>Ariketa egiteko beharrezkoa den informazioa ulertzeko denbora: minutu 1.</p>
Oharra: azterketariak ez dute denborarik izango ariketak prestatzeko.		

Ahozko proba bikoteka egingo da (salbuespenez, ahozkoa hirunaka edo banaka egingo da).

[Ahozko adierazpen probari buruzko azalpen zehatzagoa.](#)

3. ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK**Idatzizko Adierazpena**

IRIZPIDEAK	ZER EBALUATUKO DA
Egokitasuna	<ul style="list-style-type: none"> ◆ ulergarritasuna. ◆ ariketan eskatutakoaren garapena. ◆ hitz kopurua. ◆ erregistroari, hartzaileari, helburuari eta egoerari egokitu zaion.
Koherentzia eta kohesioa	<ul style="list-style-type: none"> ◆ testu osoa eta betea idatzi den eta hartzaileak hala jasotzen duen. ◆ informazio esanguratsua eta baliagarria ematen den. ◆ mezua hartzen duenak zer dakien eta zer informazio duen kontuan hartzen den.
	<p>Informazioaren eta ideien antolaketa honako hauek oinarri hartuta:</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ lokailuen erabilera egokia. ○ erreferentzia mekanismoak. ○ puntuazio-zeinuak. ○ egituren erabileran nahikotasuna eta ugaritasuna.
Aberastasuna: morfosintaxia eta hiztegia	<ul style="list-style-type: none"> ◆ nahikoa hiztegi aberatsa erabili den eta testua errepikakorregia gertatzen ez den. ◆ erabilitako hiztegia behar bezain zehatza den eta ez den zalantzarik eta anbiguotasunik sortzen. ◆ mailako egiturak erabili diren: ugaritasuna, aniztasuna eta egokitasuna. ◆ testu idatzia egokia den eskatu den atazari edo egitekoari erantzuteko: nori zuzendua den / hartzailea, testuinguru soziolinguistikoa, testuak bete behar duen funtzioa.
Zuzentasuna	<p>Mailako baliabide linguistikoak menderatzen diren ohiko funtzioak betetzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ perpausen osaketa: hitzen ordena eta komunztadura. ○ morfologia-elementuak (aditz-jokoak, deklinabidea) egoki erabiltzea. ○ aditz-denborak eta aspektuak zuzen erabiltzea. ○ egitura sintagmatikoen erabilera zuzena (aditz, izen eta adjektiboen osagarriak). ○ Ortografia.

Ahozko Adierazpena

IRIZPIDEA	ZER EBALUATUKO DA
Egokitasuna	<ul style="list-style-type: none"> ◆ ariketan eskatutakoa bete den. ◆ erregistroa hartzaileari, helburuari eta egoerari egokitu zaion. ◆ Ideien egokitasuna eta beraien garapena komunikazio egoera kontuan hartuta. ◆ elkarreraginerako estrategiak aplikatzea, hala nola, hitza hartzea, lankidetzan aritzea, argibideak eskatzea ... (elkarrizketan). ◆ konpentsazio estrategiez baliatzeko gaitasuna.
Koherentzia, kohesioa eta jarioa	<ul style="list-style-type: none"> ◆ informazioaren eta ideien antolaketa (batez ere, bakarrizketan). ◆ loturen eta erreferentzialtasunaren erabilera (juntagailuak, izenordainak, etab.). ◆ esan nahi dena adierazteko behar besteko erritmoan mintzatzeko gaitasuna eta, elkarrizketan, elkarreragin arinari eusteko gaitasuna.
Aberastasuna: morfosintaxia eta lexikoa.	Hiztegia eta egiturak zehaztasunez erabiltzen dituen eta erabilera horretan nahikoa ugaritasun erakusten duen.
Zuzentasuna eta ahoskera	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Mailako hizkuntza-baliabideak zenbateraino menderatzen dituen ohiko funtzioak betetzeko: <ul style="list-style-type: none"> ○ esaldiak eraikitzea (hitzen ordena). ○ amaierak (morfologia). ○ aditz-formak (denborak eta aspektuak). ◆ Balio fonologikoen eta haien funtzio adierazgarrien erabilera.

4. AZTERKETA EREDUA: ARIKETAK.ADIBIDE PRAKTIKOAK

[Azterketa ereduak eta ariketa praktikoak.](#)

5. PROBA EGITEAREKIN ETA ADMINISTRATZEAREKIN LOTUTAKO ZENBAIT KONTU**Administrazioa****◆ Proba egin ahal izateko baldintzak**

Tarteko Mailako ziurtagiria lortzeko proba egiteko, nahitaezko baldintza da Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako batean matrikulatuta egotea dagokion hizkuntza eta mailan.

◆ Deialdiak

Azterketetako egutegia kontsulta daiteke ikasturte bakoitzari dagokion ebazpenean, ikasle ofizialenean zein azterketari libreenean.

◆ Proba ezintasunen bat duten pertsonen egokitzea

Ezintasunen bat duten ikasleen behar berezietara egoki daitezke probak. Horretarako, matrikulatzean, dagokion eskolan jakinarazi beharko du hori interesatuak.

◆ Proba berrikusteko eta erreklamatzeko eskubidea.

Antolakuntza eta funtzionamendu araudiaren arabera –bertan zehazten da zein diren ikasleen eskubide eta betebeharrak– edozein azterketarik uste badu ebaluazio-prozesua ez dela egokitu araudian ezarritakora, proba berrikusteko eskaera egin dezake proba egin duen Hizkuntza Eskola Ofizialean, eskola bakoitzak aurreikusitako egutegia errespetatuz, betiere. Dagokion hizkuntza-departamentuak azalpenak emango dizkio interesatuari.

Azterketariaren eginbeharrak eta erantzukizunak

	Probaren aurretik	Proban zehar
EGINBEHARRAK	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Gogoratu NAN, pasaportea edo nor zaren egiaztatuko duen beste agiriren bat aurkeztu beharko duzula azterketa-gelan eskatutakoan. ◆ Tinta beltz edo urdinezko boligrafoa ekarri behar duzu probara. ◆ Proba normaltasunez egitea oztopa dezakeen edozein arrazoiren berri eman behar zaio eskolako Ikasketa Burutzari, gutxienez proba egin baino astebete lehenago. Ikastetxeko Zuzendaritzak erabakiko du aurkeztutako arrazoia onartu ala ez; edozein kasutan, ordaindutakoa ez da itzuliko. 	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Erantzun guztiak boligrafo beltz edo urdinaz idatz itzazu. Ez da zuzenduko proba ofizialaren itxura bera ez duen probarik; ezta arkatzez idatzitakorik ere. Ez ezazu erabili ezabatzen den boligraforik. ◆ Itzali gailu elektronikoen guztiak, telefono mugikorra eta erloju elektronikoa barne. Azterketa egin bitartean, ezin izango da horrelako gailurik erabili, ezta denbora kontrolatzeko ere. Arau hau bete ezean, azterketa baliogabetu egingo da.
ERANTZUKIZUNAK	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Ondo begiratu probaren eguna, ordua eta gela zein diren eta antolatu garaiz iristeko. 	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Behar bezala antolatu eta banatu ariketa bakoitza egiteko dagoen denbora. Denborak kalkulatu daude eta ariketa bakoitza egiteko nahikoa asti dago. Komenigarria izaten da berrikustea eta egon daitezkeen akatsak zuzentzea. ◆ Arretaz irakurri ariketa eta zati bakoitzerako emandako argibideak. ◆ Letra argia erabili ariketa osoan. Zuzentzat emandako erantzunak argi geratu direla ziurtatu. ◆ Garrantzitsua da lasai egotea eta proba egiteko ematen diren argibideak arretaz jarraitzea, batez ere entzunaren ulermenari dagokion zatian.

6. 4. INDARREAN DEN ARAUDIA

Lege eta administrazio arauak

Tarteko Mailari dagokion Ziurtagiria lortzeko Probak legean eta administrazioan arauturik daude, ondorengo lege eta agirietan, hain zuzen:

- ◆ [2/2006 Lege Organikoa, 2006ko maiatzaren 3koa.](#)
- ◆ [1629/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa.](#) Erregimen bereziko hizkuntzen irakaskuntzako curriculumaren oinarrizko alderdiak finkatzen dira dekretu horretan. Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, arautzen ditu Erregimen bereziko hizkuntzak.
- ◆ [46/2009 Dekretua, otsailaren 24koa.](#) EHAA - 2009ko martxoak 12, osteguna 50 zk. Honen bidez, araubide bereziko hizkuntza-ikasketen mailetako –oinarrizkoa, tartekoa, aurreratua eta gaitasun maila– curriculumaz ezartzen da eta ikasketa horiek Euskal Autonomi Erkidegoan jartzen dira.
- ◆ Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako Araubide Bereziko Hizkuntza Ikasketetako [Tarteko Mailari dagokion Curriculumaz](#).
- ◆ EAEko Hizkuntza Eskola Ofizialetako (B1) Tarteko Mailaren Ziurtagiria eskuratzeko **Azterketaren Zehaztapenen** dokumentua.
- ◆ [Agindua, 2012ko maiatzaren 15ekoa](#), Erregimen Bereziko Hizkuntza Ikasketak **ebalatu** eta egiaztatzea arautzeko dena (EHAA, 113. zkia – 2012ko ekainaren 11koa).
- ◆ **Ebazpena** Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako **proba librean deialdia** arautu eta probak nola egingo diren finkatzekoa, oraingo ikasturte honi dagokiona.

Probaren maila.

Tarteko mailako probaren maila honako lege-dokumentu hauetan jasotakoa da:

- ◆ [1629/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa.](#) Erregimen bereziko hizkuntzen irakaskuntzako curriculumaren oinarrizko alderdiak finkatzen dira dekretu horretan. Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, arautzen ditu Erregimen bereziko hizkuntzak.
- ◆ [46/2009 DEKRETUA, otsailaren 24koa.](#) EHAA - 2009ko martxoak 12, osteguna 50 zk. Honen bidez, araubide bereziko hizkuntza-ikasketen mailetako- oinarrizkoa, tartekoa, aurreratua eta gaitasun maila-curriculumaz ezartzen da eta ikasketa horiek Euskal Autonomi Erkidegoan jartzen dira.
- ◆ Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako Araubide Bereziko Hizkuntza Ikasketetako [Tarteko Mailari dagokion Curriculumaz](#).
- ◆ [Europako Erreferentzi Marko Bateratua](#), batez ere:
 - 3.3 puntua, 1. koadroa (32. orrialdean)
 - 3.5 puntua, 2. koadroa (34 – 35. orrialdeetan)

Informazioa:

- ◆ Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Hizkuntza Eskola Ofizialen Web orria:
<http://www.euskadi.eus/heo>
- ◆ Hizkuntza Eskola Ofizial bakoitzaren Web orria: <http://www.euskadi.eus/heo>
- ◆ Eusko Jaurlaritza Hezkuntza Saila:
<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/>